



LIBURUA

Zapata pila!



SUSA

ANTZERKIAREN LABIRINTOAN I

ANDER LIPUS

EHAZE ETA SUSA

AMAIA ALVAREZ URIA

Ander Lipus antzerkigileak EHAZE eta Susarekin argitaratu ditu bere autobiografia teatrala eta antzerkiari buruzko argitalpenak. *Antzerkiaren labirintoan I. Bitakora koaderno* eta *Antzerkiaren labirintoan II. Artedrama baten bila* izenburuak ipini dizkie bi liburu horiei. Oraingoan lehen aleari buruzkoak ekarriko ditugu hona.

Hasierako eta amaierako hitzekin batera, liburua bere bizitzako etapen eta bizilekuen arabera egituratuta dago, ziklo bat osatzen dutenak: Markina-Xemein (1971-1990), Madril (1990-1996), Bilbo (1996-2005), Berriz (2005-2020), Markina-Xemein (2020-2021). Azken atalari *Amaraura* izena ipini dio eta bertan bertsoak, dantza, musika, arte bisual-plastikoak, eta poesia agertzen dira, aurretik azal-

dutako antzerkiari buruzkoen osagarri.

Atal bakoitzean, bizi-etapa bakoitzean, gertatu eta aurkitutakoak testu laburren bidez aletzen ditu. Pasadizoak eta gogoetak tartekatzen dira oso bizi, mamitsu, guri elkarrizketa batean oroitzen esanguratsua kontaktzen egongo balitz bezala; tartekako galdera eta harridura ikurrek egilearen ardura eta gogoia erakutsiko dute.

Ez da autobiografia soil, memoria ariketa ederra da. Euskal antzerkiaren historia garaikidea ezagutu nahi duenarentzat biziki gomendagarria. Izen-abi-zen, termino eta mugarri segida oparoa agertzen da, bere irakasle eta bidaiidei aitortpena egiteko, mende aldaketako euskal teatroaren argazki panoramikoak erakusteko, eta Ander Lipusen ibilbide eta ekarpenaren inguruan jarduteko.

Iñigo Ibarra *Ander Lipus* ezagutuko dugu, oztopo-lasterketa batean dena ezagutu eta bere bidea aurkitu nahi izan duen euskal sortzaile eta eragile sutsua. Berarekin gurutzatu diren antzerkizale askoren berri ere izango dugu: bere hastapenak Markina-Xemein, Madril eta Indian; Bilboko bakarkako eta taldekako esperimentazioak; Aulestiko Artedrama plataforma eta euskal komunitatearen ingurukoak...

Antzezlanaren aurretik aktoreei "kaka pila" esaten zaie, publiko burgesaren zaldi-gurdien zaldien kaka pilaren arabera jende kopuruari begira. Baina Lipusek nahiago du Indiako atari aurreko zapatei erreparatu: "Antzerkiak herriarekin egon behar duelako". Zorionak, Lipus, eta eskerrik asko egindako lan eskergatik! ●